

Arrasateko udal liburutegiak literatura solasaldiak antolatu ditu

Saioak euskaraz zein gaztelaniaz izango dira eta hilaren 10a baino lehen eman beharko da izena bertan

Arrasateko udal liburutegiak Literatura Solasaldien beste ikasturte bat jarriko du martxan. Guztira sei saio eskainiko ditu urrian hasi eta abendura bitarte, euskaraz zein gaztelaniaz. Ekimen honen xedea, udal liburutegitik aipatu dutenez, "alde batetik, taldean liburu jakin bat irakurtzea da eta, ondoren, horretaz hitz egin eta norberak bere ikuspuntua ematea da". Horrela, euskarazko taldea Iban Zaldia idazleak koordinatuko du, eta aztertuko duen lehen lana Aingeru Epaltza iruindarraren Rock 'n-roll izango da, hilaren 24an. Epaltzak proposamen honetan belaunaldi jakin baten erretratu ironiko, krudel eta umoretsua egiten du. Hurrengo hitzorduak honako egunetan izango dira: azaroaren 28an, irakurleek Paul Austerren Brooklyn-go erokeriak izeneko lanarekin goatzeko aukera izango dute. Abenduaren 19an, Azkoitiko Juan Luis Zabala idazlearen Galdu arte obra izango da aztergai.

Gaztelaniazko tailerrak Rikardo Arregik zuzenduko ditu eta bertara hurbilduko diren partaideek liburu hauek irakurriko dituzte: Julian Barnesen La mesa limón, urriaren 17an; David Leavitt-en El cuerpo de Jonah Boyd, azaroaren 14an eta, bukatzeko, Elias Canetti bulgariarraren La lengua absuelta, abenduaren 12an. Beraz, ekin-tza hauetan esku hartu nahi dutenek Monterron jauregian eman dezakete izena urriaren 10a baino lehen. >a.d.